



Arartekoaren 2023IR-1763-22 Ebazpena, 2023ko otsailaren 27koa. Honen bidez, amaitutzat eman du bere jarduketara babes publikoko etxebizitzaren sustapen bat, errentamendu-araubidean, adjudikatzeko prozeduran guraso bakarreko familiari dagozkion puntuak ukatzeari buruz Etxebizitzako sailburuordeak hartu zuen erabakiarekiko desadostasuna dela-eta aurkeztutako kexa baten harira.

Aurrekariak

1. Arartekoak izapidetzeko onartu zuen herritar batek aurkeztutako kexa; horren bidez, kexagileak adierazi zuen ez zegoela ados Etxebizitzako sailburuordeak emandako ebazpenarekin, zeinak bere gora jotzeko errekurtsioa ezetsi baitzuen.

Zehazki, kexagileak kexa-idazkian adierazi zuen Etxebide – Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan izena emanda dagoela 2017az geroztik. Izen-ematearekin batera genero-indarkeriaren biktima-egoera behar bezala egiaztatzen zuen epaia aurkeztu zuen. Horrez gain, espedientea osatzeko, bere seme-alaba adingabeen guraso-ahal eskusiboa baliatzea aitortu zion erabaki judiziala aurkeztu zuen. Gauzak horrela, etxebizitza-beharrak zeukanez, eskatu zuen babes publikoko etxebizitzaren sustapen bat, errentamendu-araubidean, adjudikatzeko prozeduran parte hartzeko.

Parte-hartzeko eskaera onartu zioten eta, 2022ko apirilaren 8an, Arabako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek onetsi zuen onartutako eta baztertutako pertsonen zerrenda.

Alabaina, kexagileak ikusi zuen argitaratutako zerrendan ez zizkiotela esleitu guraso bakarreko familiari dagozkion puntuak.

Hori dela eta, 2022ko apirilaren 25ean, kexagileak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuen Etxebizitzako sailburuordearen aurrean. Kexa-idazkian, kexagileak agerrarazi zuen ez zegoela ados hartutako erabakiarekin, eta berriz ere aurkeztu zuen bere bi seme-alaba adingabeen guraso-ahal eskusiboa aitortu zion epaia. Ondorioz, hartutako erabakia berrikusteko eskatu zuen, bai eta guraso bakarreko familiari dagozkion puntuak emateko ere.

2. Gora jotzeko errekurtsioari erantzunez, Etxebizitzako sailburuordeak ebatzi zuen kexagilearen uziak ezestea eta Etxebizitzako lurralde-ordezkararen erabakia berrestea.

Etxebizitzako sailburuordeak arrazoi hau eman zuen ebazpenean:

- *“A efectos de la normativa reguladora del Registro de Solicitantes de Vivienda Protegida y Alojamientos dotacionales y de los procedimientos de adjudicación de viviendas protegidas y alojamientos dotacionales de*



régimen autonómico, tendrá la consideración de familia monoparental la unidad convivencial constituida por un progenitor/a con al menos un/a hijo/a menor de 26 años que carezca del otro/a progenitor/a, bien por haber éste/a fallecido o bien por tener la filiación determinada únicamente con respecto a uno de los progenitores.

En el supuesto que nos ocupa, examinando el expediente se comprueba que la situación de Dña. XXX no encaja en la consideración de familia monoparental ya que consta la filiación de ambos progenitores de los menores y no consta que alguno de ellos haya fallecido."

3. Azaldutako egitateak ikusita, Arartekoak lankidetzeta-eskaera igorri zion Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari 2022ko urriaren 26an, erreklamazioaren xedearen muina egiaztatzeko.

Helarazitako idazkian, Arartekoak adierazi zuen Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean, EAEn), guraso bakarreko familiaren berariazko estatutua zehazten duen berezko araudia egon behar dela.

Horrez gain, alde zuzeneko gogoeta batzuk helarazi zizkion, eta horiek geroago azalduko ditugu, errepikakorrak ez izateko.

4. Arartekoak ez zuen hasierako lankidetzeta-eskaera horri lotutako erantzunik jaso; hortaz, 2022ko urriaren 26an, Arartekoak errekerimendu bat igorri zion aipatutako sailari, zeinaren bidez gogorarazi baitzion berariazko erantzuna emateko betebeharra zeukala.

Zoritxarrez, orduan ere, sailak ez zuen epe barruan erantzun hasierako errekerimendu hori.

Hori dela eta, 2022ko abenduaren 20an, Arartekoak berriz ere egin zion errekerimendua sailari, hamabost eguneko epean eskatutako informazioa bidali zezan.

5. Azkenik, egindako informazio-eskaerari erantzunez, 2023ko urtarrilaren 25ean, erakunde honen sarrera-erregistroan jaso genuen Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Sailburuaren Kabineteko zuzendariaren erantzuna.

Laburbilduz, helarazitako txostenaren bidez, Arartekoari jakinarazi zion EAEn ez dagoela guraso bakarreko familiaren definizio bateraturik eta, beraz, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak Etxebizitzako sailburuordearen 6/2020 Instrukzioa onetsi zuela.

Era berean, sail horrek adierazi zuen aipatutako instrukzioak ez dituela barne hartzen gurasoetako bati seme-alaba adingabeen guraso-ahal eksklusiboa aitortzen dioten epai judizialen kasuak.

Izan ere, instrukzioan kasu horiek jasota ez egoteagatik, Arabako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek hasiera batean, eta Etxebizitzako sailburuordeak ondoren, ez zuten ulertu kexagileak guraso bakarreko familia eratzen zuenik. Ondorioz, biek ezetsi zuten dagokion puntuazioa ematea babes publikoko etxebizitzaren sustapen bat, errentamendu-araubidean, adjudikatze prozeduran parte hartzeko.

Hala eta guztiz ere, aipatutako sailak aintzat hartu ditu aurretiazko gogoetak eta hauxe adierazi dio Arartekoari:

- *"Irizpidea berrikusiko da, eta horrela jakinaraziko zaie jarraibide honen hartzaileei: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.*

XXX-ren espedientea zuzenduko da, guraso bakarreko familiazat har dezaten, dagozkion ondorioekin."

6. Hortaz, beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbideko oinarriak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Arartekoak aukera izan zuen une horretako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak [2018R-2196-16](#)⁶ Ebazpenean guraso bakarreko familiaren egoera aitortzeko erabilitako irizpidea aztertzeko.

Une horretan, Arartekoak jakinarazi zuen kezkatuta zegoela oro har aplikatu beharreko berariazko araudirik ez egoteagatik, eta adierazi zuen sailak erabilitako barne-irizpidea berrikusi beharra zegoela, guraso bakarreko familiaren egoera ere barne hartu dezan.

2. Helarazitako ebazpenaren ondorioz, Arartekoak egiaztatu zuen Etxebizitzako sailburuordeak 2020ko ekainaren 11n onetsi zuela 6/2020 Instrukzioa, guraso bakarreko familiaren definizioari buruzkoa.

⁶ Arartekoa. Arartekoaren 2018R-2198-16 Ebazpena, 2018ko urriaren 22koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen zaio berrazter dezala "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan inskribatutako espediente bati aitortutako puntuazioa.. Hemen eskuragarri: www.ararteko.eus

Instrukzio horretan, jarraian adierazitako kontuak hartu ziren aintzat guraso bakarreko bizikidetza-unitatea aitortzeko ondorioetarako:

- *"Guraso bakarreko familiazat hartuko da gutxienez 26 urtetik beherako seme edo alaba bat duen guraso batek osatutako bizikidetza-unitatea, baldin eta beste gurasoa hilda badago edo seme-alabatasuna gurasoetako bati bakarrik lotuta badago.*

(...)

Ez du eragorten guraso bakarreko familiazat hartzea:

- a) *inskripzioaren titularrak edo bizikidetza-unitateko kideak beste pertsona batzuk izatea, betiere 26 urtetik beherako adingabearen gurasoarekin lerro zuzeneko odolkidetasun-harremana badute.*
- b) *26 urtetik beherako gurasoaren tutoretza aitortuta duten beste pertsona batzuk bizikidetza-unitateko kide izatea.*

Hala ere, ez da guraso bakarreko familiazat hartuko aipatutako bi kasuetan aipatutakoaz bestelako harremana duten beste pertsona batzuek osatzen duten bizikidetza-unitatea."

3. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak igorritako informazioa ikusita, Arartekoak amaitutzat eman du bere jarduketa kexa-espediente honetan, ikusi baitu aipatutako instrukzioan erabilitako irizpideak berrikusteko konpromisoa dagoela.

Horrez gain, erreklamazio hau izapidetzeak ahalbidetu du kexagilearen uziak onartzea eta, hortaz, zuzendu egingo da bere espedientean ageri den puntuazioa.

Horrenbestez, Arartekoak uste du bidezkoa dela Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari eskerrak ematea kexa-espediente hau behar bezala ebazteko eman duen laguntzagatik.

Hala ere, Arartekoak badaki 2020. urtean onetsitako instrukzioak ez duela zehatz-mehatz jasotzen guraso bakarreko familiaren egoera modu errazean antzeman eta ondoren aitortzeko kasuistikarik.

4. Horiek horrela, Arartekoak errepikatu nahi du EAEk berezko araudia izan behar duela, batetik, guraso bakarreko familiaren kontzeptua definitu dadin eta, bestetik, familia-unitatea osatzen duten pertsonen guraso bakarreko familiazat jotzeko bete behar dituzten baldintzak ezarri daitezzen.



Kontu hori askotan aipatu da Eusko Legebiltzarrari helarazitako urteko txostenetan⁷.

Halaber, Arartekoak gogorarazi nahi du EAEko Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen zioen azalpenean beren-beregi adierazi zela guraso bakarreko familiek ez zeukatela berariazko estatutu orokorrik egoera hori modu unibokoan aintzat har dadin EAEko erakundeen askotariko esku-hartzeetan.

Igarotako denbora gorabehera, Arartekoak deitoratu du EAE oraingoz ez dagoela aitorten horri dagokion segurtasun juridikoa emateko hautua egin duten autonomia-erkidegoen artean⁸.

Hain zuzen ere, Estatistikako Institutu Nazionalaren 2020ko datuen arabera, guraso bakarreko familien kopuruak gora egiten jarraitzen du⁹.

Era berean, guraso bakarreko familien artean dagoen pobrezia-aren gorako joera nabarmendu da Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen 2020ko inkestan¹⁰.

5. Azkenik, autonomia-erkidego batzuetan lortu den arau-zehaztapena agerraraztearren, aipatzekoa da Nafarroako Foru Komunitatean guraso bakarreko familiak egiaztatzeko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen 3. artikulua, zeina

⁷ **Ararteko.** Batzuk aipatzearen: Eusko Legebiltzarrari egindako txostena, 2010. urtekoa, 264. or.; Eusko Legebiltzarrari egindako txostena, 2011. urtekoa, 287. or.; Eusko Legebiltzarrari egindako txostena, 2012. urtekoa, 172. or.; Eusko Legebiltzarrari egindako txostena, 2013. urtekoa, 182. eta 186. orr. Eusko Legebiltzarrari egindako urteko txostena (2014), 206. or.; Eusko Legebiltzarrari egindako urteko txostena (2015), 203. or.; Eusko Legebiltzarrari egindako urteko txostena (2016), 210. or.; Eusko Legebiltzarrari egindako urteko txostena (2017), 205. or.; Eusko Legebiltzarrari egindako urteko txostena (2018), 206. or.; Urteko Txostena (2019) 208. or.; Urteko Txostena (2020), 211. or.; eta Urteko Txostena (2021), 189. or.

⁸ Besteak beste: **Katalunia:** Kataluniako Familiak Babesteko uztailaren 4ko 18/2003 Legea eta irailaren 29ko 151/2009 Dekretua; **Galizia:** Galiziako bizikidetzeta eta familia babesteko ekainaren 30eko 3/2011 Legea; **Aragoi:** Aragoiko Familiak Babesteko urriaren 23ko 9/2014 Legea eta CDS/384/2019 Agindua, apirilaren 4koa; **Balea Uharteak:** Familiak Babesteko uztailaren 31ko 8/2018 Legea eta Guraso bakarreko familiaren eta familia ugariaren egoera aitortzeko prozeduren printzipio orokorrei buruzko irailaren 21eko 28/2020 Dekretua; **Nafarroa:** Nafarroako Foru Komunitatean guraso bakarreko familiak egiaztatzeko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legea; **Kantabria:** 26/2019 Dekretua, martxoaren 14koa, zeinaren bitartez arautu egiten baita Kantabriako Autonomia Erkidegoan guraso bakarreko familiaren egoera aitortzea. **Valentziako Erkidegoa:** 19/2018 Dekretua, martxoaren 9koa, Consellarenak, Valentziako Erkidegoan guraso bakarreko familien aitortza arautzen duena.

⁹ **Estatistikako Institutu Nazionala.** Etxebizitzetako inkesta jarraitua (2020). Eskuragarri hemen: www.ine.es

¹⁰ **Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.** Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2020ko Inkesta. Emaiza nagusiak: 2021eko maiatzaren 6a. Eskuragarri hemen: www.euskadi.eus



martxoaren 22ko 9/2022 Foru Legearen bidez aldatu baitzen; izan ere, horren bidez zehaztu zen zer jo behar den guraso bakarreko familiazat edo horren antzekotzat. Zehazki:

Pertsona batek eta haren seme-alabek osatua, Erregistro Zibilean pertsona hori guraso bakartzat inskribatuta duela.

Alarguntasun-egoeran edo horren baliokidetzat jotako batean dagoen pertsona batek eta berak pertsona zendu edo desagertuarekin izandako seme-alabek osatzen dutena.

Pertsona batek eta horren seme-alabek osatuta dagoena, baldin eta guraso-ahala modu eskusiboan badu.

Pertsona batek eta urtebeterako edo gehiagorako harreran hartuta dituen adingabeek eta lehenago harrera iraunkorrean egon diren adindunek osatzen dutena.

Semearen edo alabaren edo seme-alabaren zaintza eta jagoletza eskusiboki gurasoetako batek dueneko, baldin eta familia-unitatearen diru-sarrerek ez badute 1,7 aldiz gainditzen Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasunaren (ERREGEROSNA) adierazlea.

Familia bat non bere kargura semeak edo alabak edo seme-alabak dituen gurasoak beste gurasoengandik genero-indarkeria pairatu duen, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.

Elkarrekin bizi diren gurasoetako bat urtebetez edo gehiagoz espetxeratuta daukana, baldin eta familia-unitatearen dirusarrerek ez badute 1,7 aldiz gainditzen Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasunaren (ERREGEROSNA) adierazlea.

Elkarrekin bizi diren gurasoetako bati Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak mendekotasun handia, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia aitortu dionekoa, baldin eta familia-unitatearen dirusarrerek ez badute 1,7 aldiz gainditzen Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasunaren (ERREGEROSNA) adierazlea. Kasu horretan, gurasobakartasun-egoerako familia-unitatea osatuko dute mendekotasun handiko edo baliaezintasun handiko egoeran ez dagoen pertsonak eta haren semeak edo alabak edo seme-alabek.

Elkarrekin bizi diren gurasoetako bat ebazpen irmoz kanporatze-agindua jaso izanaren ondorioz nazio-lurraldetik kanpo dagoeneko, harik eta itzultzeko moduko bizileku-baimena lortzeko moduan egon arte, baldin eta familia-



unitatearen dirusarrerek ez badute 1,7 aldiz gainditzen Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren (ERREGEROSNA) adierazlea.

Elkarrekin bizi diren gurasoetako bat zaurgarritasun-egoeran dagoeneko, elkarbizitza-kide duen beste pertsona non dagoen ez jakiteagatik, horrek bere jatorrizko herrialdea gatazka armatu baten ondorioz utzi ondoren edo migrazio-ibilbidean zehar harekiko kontaktua galdu ondoren, baldin eta familia-unitatearen dirusarrerek ez badute 1,7 aldiz gainditzen Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren (ERREGEROSNA) adierazlea”.

Funtsean, guraso bakarreko familiazat zer jo behar den definitzen duen eta sail bakoitzak erabiltzen dituen interpretazio-irizpideak jasotzen dituen berariazko araudirik ez egotea segurtasun juridikoaren printzipioaren kontrakoa da, eta horrek zailtzen du EAEko askotariko erakundeetan sektore-araudia modu koherentean aplikatzea.

Hortaz, honako ondorio hau atera dugu:

Ondorioa

Arartekoak kexa-espedita hau itxi eta artxibatuko du, egiaztatu baitu Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak azkenik zuzenduko duela kexagilearen espedita eta emango dizkiola guraso bakarreko familiaren egoerari dagozkion puntuak.

Era berean, Arartekoak ikusi du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sails konprometitu dela guraso bakarreko bizikidetzaren egoera zehazteko erabilitako irizpideak aldatzera.

Hala eta guztiz ere, Arartekoak Eusko Jaurlaritzari eskatu nahi dio hausnartu dezala bidezko arauzko neurriak hartzeko beharri buruz, guraso bakarreko familiaren egoerari behar besteko segurtasun juridikoa emateko xedez.

Azkenik, adierazi behar da Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak erabilitako irizpidearen berri eman beharko diela etxebizitza babestuen eskatzaileei, harik eta guraso bakarreko familiaren estatutu juridikoa barne hartzen duen xedapen arautzailea onetsi arte.